



# Sinesmen dibertsitatea eta komunitatearen ehuntzea Euskal Herrian



**Uzt. 17 2026**

**Kod. G13-26**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2026

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Uzt. 17 2026

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Euskara Gaztelera

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**



## Azalpena

Jardunaldiak azken mendeetan Euskal Herrian panorama erlijioso eta espiritualean izandako eraldaketa sakonaren berri emango du. Eraldaketa hori uler dezagun, erlijio fenomenologiaren oinarriko kontzeptuak zehaztuko dira, Euskal Herriko erlijio emaria iragan hurbil eta orainean zein den aztertuko da, tradizio erlijiosoen arteko elkarrizketarako gakoak aurkeztuko dira, eta erlijioari atxikimendua erakutsi dioten ibilbide ezberdinetako ahotsak jasoko dira, testigantza legez.

Horrekin guztiarekin, katolizismoaren eraginaren gainbehera historikoa, sekularizazio prozesu azkarra eta migrazioak bultzatutako aniztasun gero eta handiagoaz hausnartuko dugu, eta, horren aurrean, gizarte-kohesioa eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzeko bideak proposatuko dira, askotariko sinesmenak dituen euskal gizartearen bizikidetzak aberastu eta indartzeko.

Jardunaldiaren eragile da Eusko Ikaskuntza garatzen ari den *Sinesmen-dibertsitatea eta komunitatearen ehuntzea. Erligioen arteko elkarrizketa eta gizarte-kohesioa* proiektuko taldea. Ekimen honen bidez, hortaz, proiektuak sortutako ezagutza zabaltzearekin batera, sareak sortu eta egonkortu nahi dira, eta publiko orokorra gure gizartearen arlo honetara irekitzea eta prestatzea.

## Helburuak

Praktika espiritualak (tradizionalak eta garaikideak) kultura-aniztasun testuinguru batean kokatzen ikasi.

Elkarrekiko ulermena eta gizarte-kohesioa sustatuko duten balio-iturriak eta kulturarteko aberastasun-gunea sortzeko gakoak identifikatu.

Komunitatea sendotzeko esperientzia partekatuen testigantzak jaso eta tradizio erlijioso desberdinen arteko bizikidetzak sustatu.

Euskal Herriko erlijio emaria eta azken mendeetako gertakari historikoak elkarrekin ulertu.

## Antolakuntza




# Programa

2026-07-17

09:00 - 09:15	Erregistroa eta akreditazioa
09:15 - 09:25	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: <b>Ana Urkiza Ibaibarriaga</b>   Eusko Ikaskuntza - LehendakariaHizkuntza: euskara <b>Yosu Arraiz Aramburu</b>   Gipuzkoako Foru Aldundia - Administrazioaren Berrikuntzako zuzendariaHizkuntza: euskara
09:25 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Jon Mentxakatorre Odriozola</b>   Mondragon Unibertsitatea - Jardueraren zuzendariaHizkuntza: euskara
09:30 - 10:30	“Erljio fenomenologia eta dibertsitatearen oinarriak, kontzeptuak, datuak” <b>Jon Sarasua Maritxalar</b>   Mondragon Unibertsitatea - Irakasle-ikerlariaHizkuntza: euskara
10:30 - 11:00	Atsedena
11:00 - 12:00	“Euskal Herriko erlijio emaria eta sekularizazioa XX-XXI. mendeetan” <b>Jon Mentxakatorre Odriozola</b>   Mondragon Unibertsitatea - Irakasle-ikerlariaHizkuntza: euskara
12:00 - 13:00	“Balio partekatuak eta elkar-aberastasuna tradizioen artean: lorpenak, aukerak eta erronkak” <b>Txema Ezkerra</b>   Eusko Jaurlaritza - Aniztasun, Bizikidetzeta eta Belaunaldiarteko Elkartasunaren zuzendariaHizkuntza: euskara
13:00 - 13:50	Mahai ingurua: “Erljio bizipen eta hautua: gazteen ibilbidearen berri” <b>Jon Sarasua Maritxalar</b>   Mondragon Unibertsitatea - Irakasle-ikerlaria (Moderatzailea)Hizkuntza: español <b>Simon Lopez Artetxe</b>   - -Hizkuntza: español <b>Salima Ahmiduch El Haddouti</b>   - -Hizkuntza: español
13:50 - 14:00	Itxiera <b>Jon Mentxakatorre Odriozola</b>   Mondragon Unibertsitatea - Jardueraren zuzendariaHizkuntza: euskara

## Zuzendaritza



### **Jon Mentxakatorre Odriozola**

Eusko Ikaskuntza

---

Jon Mentxakatorre Odriozola Giza Zientzietan graduatua da (Deustuko Unibertsitatea), Filosofian doktorea (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa) eta Filologian doktorea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Mondragon Unibertsitatean ari da, gaur egungo gizartea eta euskal pentsamenduaren gaien gainean irakas-ikerketan. Filosofia Saileko arduraduna da UEUn.

## **Irakasleak**



**Salima Ahmiduch El Haddouti**

---




**Txema Ezkerra**

---



**Simon Lopez Artetxe**

---



**Jon Mentxakatorre Odriozola**

Eusko Ikaskuntza

---

Jon Mentxakatorre Odriozola Giza Zientzietan graduatua da (Deustuko Unibertsitatea), Filosofian doktorea (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa) eta Filologian doktorea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Mondragon Unibertsitatean ari da, gaur egungo gizartea eta euskal pentsamenduaren gaien gainean irakas-ikerketan. Filosofia Saileko arduraduna da UEUn.



## **Jon Sarasua Maritzalar**

Garabide elkarte. Huhezi fakultatea, irakaslea eta kulturgilea

---

Komunikazio Zientzietan Doktorea da. Kazetaritza eta Soziologia ikasketetan ibilia. Bertsolaritzaren munduan oso gazte hasi zen eta urte askotan bertsolari gisa aritu ondoren, 2000 urtean utzi zion bertsolaritza publikoari. Mondragon Unibertsitatean aritu da hogeitaz urtez, arlo sozioekonomikoan eta kultura arloan. Herrigintzako hainbat alorretan taldeak sustatzen jardun du, Lanki, Garabide, Sorguneak eta Bagara bezalako egitasmoen sorreran. Autoeraketa, gizarte ekonomia eta hizkuntza arloak landu ditu egitasmo horietan, eta berauei lotutako nazioarteko zubiak. Hainbat liburu eta argitalpen egina da hizkuntza nahiz kultura arloan eta gai sozio-ekonomikoetan.  
<http://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/jon-sarasua>

# Matrikula prezioak

<b>AURREZ AURRE</b>	<b>2026-07-17 ARTE</b>
Orokorra	48,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	41,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	34,00 EUR
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	41,00 EUR
<a href="#">Donostia Kultura</a>	41,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	41,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	41,00 EUR

<b>ONLINE ZUZENEAN</b>	<b>2026-07-17 ARTE</b>
Orokorra	48,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	41,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	34,00 EUR
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	41,00 EUR
<a href="#">Donostia Kultura</a>	41,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	41,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	41,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa